

## Antxiñako fotografixak

### Altzaa-Gomendio-Arzelus-Lizaurtarrak

**L**uis Gomendio Saleses etzan oñatiarra, baiña gure herrixarekin hartu-emun eta zerikusi sakona euki eben. Hainbat urtian Oñatiko alkate izandako **Esteban Gomendio**ren lehengusua zan. Donostian eta Madrillen zittuan bere negoziuak. Erreinuko kapitalian arlo desbardiñetako jente inportante askorekin eukan ezaupidiak eta kontaktuak: ministro, diputadu, enpresarixo, arkitekto, pinttore eta goi maillako beste jauntxo batzuekin. Baldintza horreikin pertsonaje oso egogixa izan zan 1920ko hamarkadan txantxikuarran interesak hiriburuan defendidu eta aurrera atarateko.

Hemen urte horreittan gauzatu ziran bi proiektu garrantzitsutan erabagikarria izan ei zan Luis Gomendioaren jestiñua. Bata treña honaiño ekartiarena: XX. gizaldiaren hirugarren hamarkadiaren hasieran lortu zan hori, 1923an, **Vasco-Navarro** izeneko **trenbidiaren adarra** San Prudentzioetik Oñatiraiño aillegau zanian. Bestia bost urte beranduago, 1928xan, unibersidadia izandako ikastetxe zaharrian **bigarren mailako institutua** barriro jarri zanian. Zortzi ikasturtian martxan egon ondoren, gerra gazbillaren lehenengo hillabetietan kendu euen, 1936ko agorrian.

Ordurako Luis Gomendio nahikua oñatiartuta eguen, senidiekin beti eduki izandako tratuaz gaiñera, Altzibar aldian **Gomendio-enea** izeneko txalet politta 1923an jaso eragin eben-eta. Gerra ostian **Onraitana** izenarekin be ezagutu zan. Bere tartekua zan Damian Lizaur arkitekto oñatiarrak moldau otsan planuak eta zuzendu eben obria, orain hurrengo batian gogoraketan geben lez. Goiko argazkixa etxia egin barritan ataratakua izango da.

Beste fotografixiak Kale Zaharreko beheko partian daguen etxe ezagun baten atzekaldia erakusten dosku: sasue batian **Altzatarren etxia** esaten xakon, han bizi izan ziralako XVIII-XIX. mendetan jatorri bizkaittara eukan **Alzaa** familixa ospetsuko hainbat jeneraziño. Altzatarrek Gomendiotarrekin senidetu ziran eta Karmen Gomendio aittatu barri dogun Damian Lizaurrekin ezkondu zanian, etxe dotore hori hartu euen bizilekutzat. Harrezkero guk **Arkitektuarena** moduan ezauketan geben. Azkenaldi honetan ziharo aldatu da barrutik eta hainbat bizitza egin dira lehen bakarra zan lekuan.

Etxeosteko eskillaran agiri diranak familixa tartekuak dira, oñatiarrak gehixenak; umiak Lizaur-Gomendio anai-arrebak dittugu. Goittik behera eta ezkerretik eskumara hona euron izen-abizenak:

Goixeneko illaran: **Damian Lizaur Lasa**, arkitektoa; **Luis Gomendio Saleses**, donostiar oñatiartua; **Maritxu Arzelus Larrañaga**, Gomendiotarren lehengusua amaren aldetik; **Bizente Arzelus Larrañaga**, aurrekuaren anaia eta Oñatiko medikua; **Josefina Sanz Gomendio**, Kale Zaharreko hurrengo etxian, **Santzenian**, bizi zan beste lehengusu hau; eta **X. X.**, **Pilar Lachen** biharbada, behian jarritta daguen Gillermo Arzelusen andria.

Bigarren illaran: **Beatriz Lizaur Gomendio**, Damian eta Karmenen alabia; eta **Karmen Gomendio Larrañaga**, Damianen andria, **Mari Karmen** alabatxua besuetan dakola.

Beheko illaran harmailletan jazarritta: **Jose Migel Gomendio Larrañaga**, abogadu eta politiko ezaguna, eta altzuan bere illobia **Manttoni Lizaur Gomendio**; eta **Gillermo Arzelus Larrañaga**, **Jose Luis** eta **Juan Mari Lizaur** anaiekin.

J. E

Argazkixak Oñatiko udal artxibuan lortu dittugu Izar Salaberriren bittartez. Argibidiak, barriz, Beatriz Gomendio eta Arantxa Zuluetari zor dostegu. Milla esker danoiri.

Fan dan hilleko aldizkarixan argittaratu geben Erramu eguneko fotografixan beste hiru emakume identifikau ahal izan dittugu: Maria Zubia, Goribar auzoko Antzokua, goixeneko illaran lehenengua ezkerretik kopeta luziak; Benita Zubia aurrekuaren ahizpia, Antzokua hau be, bigarren illaran hirugarrena eskumatik; eta Angeles Jauregi, Garibai auzoko Paikona baserrikua, beheko illaran laugarrena eskumatik, soiñeko illunarekin. Informaziñua euren alabak eskuratu doskue: Lurdes Iñurritegi, Karmen Azkune eta Nieves Egaña, hurrenez hurren. Eskerrik asko.

